

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako hizkuntza eskola ofizialeko matrikula libre egiteko epea irekita dago

Euskara eta ingelesaren kasuan aurrematrikulazioa egin beharko da otsailaren 12tik 18ra bitartean

Ostirala, 2018.eko otsailak 9

Hezkuntza departamentuak dagoeneko zehaztu ditu hizkuntza eskola ofizialean era librean azterketak egiteko matrikulazio egunak. Alemana, frantsesa eta italiara hizkuntzetan matrikula librea egiteko epea otsailaren 19tik 25era izanen da irekita.

Euskara eta ingeles hizkuntzetan matrikula egin baino lehen aurrez izena eman beharko da, otsailaren 12tik 18ra. Aurrez izena eman dutenek bakarrik aukeratu ahalko dute hizkuntza horietan esleitutako eskolan otsailaren 27tik martxoaren 4ra.

Prozesuari buruzko informazio gehiago lortzeko edo aurretiko matrikula eta matrikula libre programetara sarbidea izateko, jo mesedez dagokion eskolaren web-orrira:

[Iruñeko HEO: http://eoip.educacion.navarra.es/eu](http://eoip.educacion.navarra.es/eu)

[Tuterako HEO: http://eoitudela.educacion.navarra.es](http://eoitudela.educacion.navarra.es)